

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresan ekoiztuko dugun ondasuna erabilpen anitzak izan ditzake. Gure kasuan, hezkuntzan zentratuko gara. Eskola askotan ari dira garatzen 2.0 proiektua. Horretarako ordenagailuak behar dituzte ikasleak gelan. Ordenagailu hauek orgatxoetan gordetzen dira eta pertsona batek bultzatuz eramaten dira geletara.

Gure sistemarekin, orgatxo hauek automatikoki mugitu daitezke gela batetik bestera. Gela bakoitzetan "home base" direlakoak egongo dira instalatuta. Gailu bakoitzak kode bat izango du. Segun eta zein geletara joan behar den, kodea sartu eta bertara joango da. Horrela, irakasleek bai ikasleek denbora aurreztu, gela hobeto antolatu, denbora era hobean kudeatu egin dezakete.

Roomba xurgagailuak duen GPS sistema ezaguna da, baina gu aplikazio berri baten bidez erabiliko dugu. Gure enpresako teknikariek, eskola ezberdinetatik pasatuko dira funtzionamendu azalpenak ematen, beraz, kontaktu zuzena eskaintzen dugu.

